

MODA AZKARRAREN BENETAKO KOSTUA

Logika kapitalista eta patriarkalek gure planetaren mugak aintzat ez hartzeraz eta kolokan jartzera bultzatu gaituzte, eta modaren industria da horren adierazle nabarmena. Jantzki merkeen, denboraldi gero eta laburragoen eta publizitate oldarkorraren ondorioz, etengabe berritzen ditugu gure armaruetako edukiak. Munduan, arroparen ekoizpena bikoiztu egin da 2000tik 2015era bitarteko tartean. Ellen McArthur Fundazioaren arabera, herritarren kontsumoa % 60 hazi da azken 15 urteetan, eta Europako armaruetan dagoenaren % 30 ez da erabili urtebetean gutxienez.

Egoera horren ondorioak lazgarriak dira gizartearen eta ingurumenaren ikuspegitik. Moda azkarraren industria kutsagarriena da energia fosilen sektorearen atzetik. Arropa Garbia Kanpainaren ikerketa baten arabera, modaren industriak klima-inpaktu ukalezina du: urtean 92 milioi tona hondakin eta 1,5 bilioi litro ur erabilezin sortzen ditu, eta munduko hondakin-uren % 20 ere bai. Gainera, sektore horren karbono-isuriek nazioarteko hegaldiek eta ontzigitzak eragindakoen batura gainditzen dute. Gizartean dituen ondorioak ere oso kezagarriak dira. Arropa-katalogoen atzean asteko 70 orduko lanaldiak ezkututzen dira (sektoreko langileen % 80 emakumea da), bai eta soldata iraingarriak, osasunerako oso kaltegarriak diren tekniken eta produktu kimikoen erabilera, eta segurtasun- eta osasungarritasun-baldintzak betetzetik urrun dauden lantegiak ere.

Errealitate horri aurre egiteko, Europar Batasuna lege bat negoziatzen ari da, langileei, komunitateei eta planetari eragiten dieten enpresa-jardunbide txarren erantzukizuna dagokien enpresei eskatzeko. Alabaina, bide luzea dago egiteko.

Zero Pobrezia Donostia Plataformako kideok jakin badakigu errealitate horren kausen oinarrian faktore asko daudela, eta kausa horiek lotuta daudela bai erabaki politiko eta ekonomikoekin, bai giza eskubideen eta ingurumen-politika egokien defentsatik urrun dauden agendekin. Horiek horrela, neurri hauek proposatzen ditugu:

- Giza eskubideen eta ingurumenaren arloan behar bezalako arreta jartzen duten lege lotesleen alde egitea. Lege horiek asmo handiak izan behar dituzte, hala nola mundu osoko langileak, komunitateak eta ingurumena babestea eta enpresak beren jardueraren eragin negatiboaren erantzule egitea.
- Gutxiago kontsumitzea. Kalitatea kantitatearen gainetik jartzea; jantzkiak konpontzea; arropa ematea eta birziklatzea; bigarren eskuko arropa erostea, eta, batez ere, behar ez dugun arropa ez erostea.
- Gure politikariei kalitatezko tokiko merkataritza sustatzeko eskatzea, eta ez gure hirietan modu esponontzian hazten ari diren saltoki handiak, azken horiek neurrigabeko kontsumo mota hori sustatzen baitute.
- Hautzarotik, pertsonen ongizate kolektibo globalaren aldeko kontzientzia kritikoa izaten laguntzen dieten trebetasunak garatzen eta tresnak eskuratzen laguntzea, alde batera uzteko gutxiengo bat aberastea bilatzen duten logika kapitalistak, hala nola moda azkarraren industriarena.
- Garapen-lankidetzarako politika, bizi dugun krisi globalaren irtenbidearen zati gisa. Beste behin egiaztatu dugu mundu honetako leku guztiak elkarri lotuta daudela eta inoiz baino beharrezkoagoa dela lan egitea giza garapen jasangarriarekin, berdintasunarekin, demokraziarekin eta giza eskubideen defentsarekin eta sustapenarekin bat egiten duten gizartearen eraikuntzaren alde. Hain zuzen, GGKEek hamarkadak daramatzagu oinarri horien gainean beste gizarte-eredu bat eraikitzeke ahaleginean.

Pobrezia Desagerrarazteko Nazioarteko Egunean, gizarte-erakundeok dei egiten diogu gizarteari, eta eskatzen diogu mobiliza dadila pobrezia-ekin eta desberdintasunarekin amaitzeko neurri zehatz eta eraginkorrak lortu arte.